



Bertsio elektroniko honen jatorria: Gipuzkoako Foru Aldundia:
<http://www.gipuzkoakultura.net/euskera/ediciones/atzo/c120f18/index.html>
Bai, pecatu da liberalqueriya, José Ignacio de Arana. L. Lasserre, 1888.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/AranaJIPekatu.htm>

BAI, PEKATU DA LIBERALKERIYA

Jose Ignazio Arana

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**BAI,
PEKATU DA
LIBERALKERIYA**

*Hoec scribo vobis ut non
peccetis.* (I. Joan. cap. 2, v. 1.)
Gauza oyek eskribitzen
dizkitzutet pekatu egin
ez dezazuten

L. LASSERRE
Baionako liburuegilea baithan egina
1888an

(JABEA BADU)



LIBURU AU ARGITARATZEKO OBISPO JAUNAK EMAN DUAN ESKUBIDEA

Guk Bayonako Jaun Obispoaren Bikario jeneralak, irakurri degu liburutxo bat: BAI, *Pekatu da liberalkeriya* deritzana; eta ez degu horretan ezerere aurkitu Elizaren irakasdeen kontrakorik. Aitzitik horren irakurtzeak ezagutzerat eman digu eskribu horren egilea dala Eliza Ama santaren seme umila, menepkoa baitaere argitua. Eta liburutxo hori txit ego-kia ediroten degu Kristau guziera erakusteko zein galgarri dan infernuak lurrerat buhatu duan liberalkeriaren edo haizukeriaren erakaskizun puzoitua. Hortakoz gogotik ematen degu gure onetsia eta inprimatzeko eskubidea.

Bayonan emana otsailaren 24n 1888n
INTXAUSPE, *Vic. Gen.*

ITZAURREA

Etzaiteala izutu, irakurle maitea, liburutxo onek daraman izen-tur-moyarekin: LIBERALKERIYA PEKATU DALA oraiñ aditu obe dezu, eta ez Jaungoikoari kontu zorrotza eman bearke diyozonean. Ordu ikaragarri artan ikuskizunik izan ez dezazun, ermotasun aundi batekin oraiñ *liberala* edo liberalen *laguntzaillea* izateari utzi zayozu. Orretarako eskeñtzen zatzu liburu txiki au, liberalkeriyaren gaitza ezagutu, gorrotatu, eta alde onetatik pekatu-rik egiñ ez dezazun. *Haec scribo vobis ut non peccetis* (I Joan. Cap. 2, v. 1.)

Ar-ezazu bada liburutxo au gogo onez, eta irakurri bera kontuz, Jaungoikoari aurrez bere argitasun eta laguntasuna eskatzen diyozkatzula.

Nik nitzaz aitortzen det ama Eliza santaren sinismenean bizi eta ill nai dedala; eta beragatikan gauredo iñoizko denboretan liburu txiki onetako ateraldiren bat debekatzen balute Aita Santubak edo obispo jaunak, nik ere debekatutzat eman nai det bertatik.

1887-garren Urteko Ama-Birjiñaren
Konzepziyo edo sortze garbiyaren egunean
X.



I Sarrera

IKASLEAK: Noiz egiten da pekatu?

MAISUAK: Jaungoikoaren legea austen danean, edo austeko arriskuba nai danean.

IKASLEAK: Zenbat modutara autsi diteke lege ori?

MAISUAK: Pensamentuz edo gogoz, itzez, obraz eta zabarkeriz.

IKASLEAK: Pekatuba noiz izango da larriya, eta noiz txikiya?

MAISUAK: Jaungoikoaren legea gai aundiyan austen bada, pekatuba ere orduban aundiya izango da; eta gai txikiyan austen danean berriz, pekatuba ere izango da txikiya.

IKASLEAK: Jaungoikoaren legea nola autsi bear da pekatu egiteko?

MAISUAK: Ezaguerarekin eta borondatez; au da, jakiñaen gañean, eta naita.

IKASLEAK: Legea autsi-arren beraz gerta liteke batere pekatuturikan ez egaitea?

MAISUAK: Bai: austen bada, ez usteian; konturako, barau edo bijili-eguna ez jakinean, pekatuturikan ez da egiten; eztaere pekatu izango ezda, otsoa dalakoan, gizonen bat iltzea.

IKASLEAK: Ezaguerarik-eza *beraizikan* danean, ez al da pekatuturikan batere egiten?

MAISUAK: Legea austen danean batere ezaguerarik eta borondaterik iduki ezkeroz beti egiten da pekatu, txikiya badere; bañon eriozkoa edo mortala izango bada pekatuba, baitare ezaguera eta borondatea artaraño-koak bear dira.

IKASLEAK: Lege austeko arriskuban edo peligroan jartzea zergatikan da pekatu?

MAISUAK: Gutxienaz behintzat legean egiten zayon despreziyoagatik, edo agertzen dan arduragabekeriyaatik.

IKASLEAK: Eta zer pekatu da ori?

MAISUAK: Autsi litekean *legearen neurrikoa*, baldiñ eta peligroa ere egiyazkoa edo aldekoa bada.

IKASLEAK: Eman bezait dotriña orren adieragarriren bat.

MAISUAK: Gezurrezko juramentuba egitea eta meza osoa jayegunean uztea, pekatu mortalak dira berenez; eta beragatikan gezurrezko juramentuba egiteko edo meza osoa uzteko arriskuban jartzeaere, berez peka-

tu mortala da.— Kontrara berriz: lapurreta txikiyak eta gezur ariñak bere-
nez pekatu benialak diralako, baitaere pekatu txikiya da artarako peligro-
an jartzea.



II Lenengo arrazoya

IKASLEAK: Pekatu al da liberalkeriya?

MAISUAK: Aixa da pekatu!!

IKASLEAK: Zergatikan ordea?

MAISUAK: *Gaiztakeri guziya, pekatu da*, diyo san Juan ebanjelistik: osoro da gauza gaiztoa liberalkeriya; beraz pekatu da au.

IKASLEAK: Gaiztakeri guziya zergatikan da pekatu?

MAISUAK: Pekatuba da, len esan danez, Jaungoikoaren lege-austea: *gaitzetik aldegeteko*, diyo lege orrek; aldegiten ezpada beraz gaitzetik, erozer dala, Jaungoikoaren legea austen da, eta orra nola gaiztakeri guziya dan pekatu.

IKASLEAK: Bañon eta nork esan du liberalkeriya gauza gaiztoa dala?

MAISUAK: Eliza gure ama santak ala erakusten du.

IKASLEAK: Elizaren dotriña ori nun irakurtzen da?

MAISUAK: *Syllabus* deritzayon lege sonatuban.

IKASLEAK: Liberalkeriyaren gañean zer erakusten du bada lege orrek?

MAISUAK: Aita Santuba eta liberalkeriya ondo ez datozela, eztaere egiñ alkar-artu dezakeela biyak.

IKASLEAK: Zer esan nai du ateraldi orrek?

MAISUAK: Aita Santuba, edo katolikotasuna, eta liberalkeriya osoro dirala alkarren etsayak, ontasuna eta gaiztakeriya, argiya eta illuna, Jesukristo eta Satanas diran bezelaxe.— Katolikotasunaren añ etsai aundiya izateko beraz liberalkeriya, osoro da au gauza gaiztoa.

IKASLEAK: Liberalkeriya zer da ordea, orren gauza gaiztoa izateko?

MAISUAK: Sustraiz eta oso-osoa artzen bada izen ori, liberalkeriya da neurrizgañeko edo *gaitzerako libertadea*: da Jaungoikoaren legea nai ez duan libertadea: da nai dana pensatu, esan, eskribitu eta egiteko *eskubidea*, gerrak ez sortzea, beste neurri gabe: degu azkenikan liberalkeriya, gure lenengo gurasoai Jaungoikoak debekatutako *onaren eta GAITZAREN JAKINDURIYAKO ARBOLA* ura bezela.

IKASLEAK: Liberalkeriya gaitzerako libertadea dala probatu al diteke?

MAISUAK: Bai, eta osoro erraz. Eskatzen ibilli bear gabe bagendukan *guziyok* Jaungoikoak emanda, onerako libertadea: liberalak ainbeste bulla-

kin billatzen duten libertadea beraz, berriya edo lengoaz gañera da; eta libertade au gaitzerakoa besterikan eziñ izan liteke.

IKASLEAK: Ona eta gaitza *aukeran* ipiñi etzizkigun bada Jaungoikoak?

MAISUAK: Bai, bañon aukera orrekin batera *agintzen* digu ona, eta *debeketzen* digu gaitza: eta or nola *eskubidea* edo libertadea onerako baizikan ez daukagun.

IKASLEAK: Eta Kristau-katolikoaren arteko liberalkeriya zer aditzen da?

MAISUAK: Ez besterikan: POLITIKA-RAKO, edo erriyen gobernu-rako LIBERTADEA: au da, soziedadeak edo jende-billerak nai dan gisara gobernatzea, Elizaren aginbidea eta legueak ezertan iduki gabe: aditzen da, Gobernuak gure ama Eliza santari zor diyen begiramentu eta laguntasuna gutxi edo geigo ukatzea: katolikoaren liberalkeriya da, elizetako eta etxe zuloetako lau paretaz kanpora, edo *jende-arterako*, erlijijorikan nai-eza: da nagusi arro eta lapur bat bezela, iduki nai lukena Eliza morrontza gogor batean, kentzen diyozkala berari, ezkontzetan, eskoletako dotriñan, eliz-lurretan, eta beste egitekoetan dauzkan eskubideak: da, itz batean esateko, gaurko eguneko liberalkeriya, POLITIKA GAIZTOA.

IKASLEAK: Nola dakigu liberalkeriyaz orain esan dena aditu bear dala?

MAISUAK: Liberalkeriyaren kontra legen eman zuanak berak esanda dakigu.

IKASLEAK: Nork eman zuan lege ori?

MAISUAK: Aita Santu Pio bederatzigarrena zanak.

IKASLEAK: Zer diyo bada Aita Santu orrek?

MAISUAK: Orain hamasei urte Franzia-tik bera ikustera joan zan jende-pilla baten aurrean, *katolikoaren liberalkeriyaz* itzegiten zuala, ala ziyon: «Nik geyena gorrotatzen dedana da Jaungoikoagandik igesi dabillen POLITIKA ZORIGAIZTOKO ORI».

IKASLEAK: Zer besterikan diyo Aita Santu orrek gai berean?

MAISUAK: Orain hamalau urte, Kinper deritzayon lekuko obispo jaunari, ara zer eskribitu ziyon: «Erakutsi ezazu, nere anai beneragarriya, erriertan ematean nik sarri opiniyo liberalak jarraitzen dituenai ez dedala itzegin izandu Elizaren etsai nabarmenak-gatik, alferrik izango zalako; baizikan opiniyo liberalak ontzat dauzkaten *katoliko onradu eta elizakoyak-gatik*».

IKASLEAK: Eta obispo jaunak zer erakusten dute gai orretan?



MAISUAK: Bitoria-ko obispo jaunak, bese bostekin batera, orain iru urte egindako karta eder eta egoki batean, irakurtzen degu liberalkeriya dala, ERLIJIYORIKAN GABEKO, edo gerenezko POLITIKA.

IKASLEAK: Zer besterikan irakurtzen da esan dan karta orretan?

MAISUAK: Zeetzen dira lengo itzak, esanaz liberalkeriya «dala dotriña bat lurreko gauzak zerukoetatikan gutxi edo geigo apartatu eta alkarren arteko ikuskizun gabe uzten dituana; dala erriyak gobernatzegno gayan, fedeaz bese aldera ibiltzea, Elizaren dotriña eta legeak aintzakotzat artzen ez dituala».

IKASLEAK: Nola esaten da bada erlijioak politikarekin ez daukala zer ikusi?

MAISUAK: Osoro gaizki esana dago ori.

IKASLEAK: Zergatikan bada?

MAISUAK: Politika edo jende-gobernatzeak, gizonen beste obra giziyak bezelaxe, izan bear du *ona*, au da, Jaungoikoaren legeak agintzen duan erara; eta ona izaten berriz erlijioagandik ikasi bear du; orra beraz nola erlijioaren egitekoa dan politika zaintzea, au bide onetik edo zuzentasu-netik irten ez dediñ.— Erljiyoak giyatu bear du bada politika edo jendearen gobernua, animak gorputza, eta zerubak lurra giyatzen duen bezela: eta besterikan esatea edo sinistea da katoliko askoren liberalkeriya.

IKASLEAK: Liberalkeriya osoro gauza gaiztoa dana orain ezagutzen det.

MAISUAK: Argatikan ere da pekatu.

IKASLEAK: Pekatutxikiya edo aundiya da?

MAISUAK: Osoro da aundiya.

IKASLEAK: Zergatikan?

MAISUAK: Gaitzaren neurrikoa da beti pekatuba: ikusi degunez orain, osoro da gaiztoa liberalkeriya: baitaere beraz osoro da au pekatu aundiya.

III Bigarrena

IKASLEAK: Liberalkeriya pekatu dala sinistarazteko eman ezat beste arrazoiren bat.

MAISUAK: Eliza ama santak debekatzen dituan dotriña eta opiniyo guziyak pekatu dira; bese opiniyo eta dotriña askoren artean, liberalkeriya ere debekaturikan dauka Elizak; liberalkeriya beraz pekatu da.

IKASLEAK: Dotriñak eta opiniyoak debekatzeko eskubidea bai al du Elizak?

MAISUAK: Bai, badu.

IKASLEAK: Nolatan du bada?

MAISUAK: Gaubetan argi egiteko eguzkiyaren lekuban illargiya geratzen dan bezela, Jesusen ordezt geratu zan Eliza munduban *jende guziyai*, salbaziyoak eskatzen dituan *gauza guziyetan*, *erakusteko aginbideakin*. animen kalterako diran opiniyo eta dotriña guziyak beraz debekatu ditzake Elizak.

IKASLEAK: Zergatikan dira pekatu Elizak debekatzen dituan dotriña eta opiniyo edo iritziyak?

MAISUAK: Dotriña eta opinio *gaiztoak* dira bakarrikan Elizak: eta nola gaiztakeri guziya pekatu baitan, len asetzeraño ikusi degunez, baitaere beraz pekatu dira Elizak debekatzen dituan opiniyo eta dotriña guziyak.

IKASLEAK: Bañon eta egiya da liberalkeriya debekaturikan daukala Elizak?

MAISUAK: Bai; iru eta bi bost dira bezelatsu.

IKASLEAK: Nun irakurtzen da bada liberalkeriyaren debekuba?

MAISUAK: Aita Santu eta obispo jaunen gazeta edo eliz-paperetan.

IKASLEAK: Zer gazeta dira oyek?

MAISUAK: Sonatubena da len aitatu dana, edo *Syllabus* deritzana.

IKASLEAK: *Syllabus* ori zer da?

MAISUAK: Elizak debekatuta dauzkan opiniyo eta dotriña berri gaiztoen *lista*.

IKASLEAK: Opiniyo eta dotriña gaiztoen lista orretan al dago liberalkeriya?

MAISUAK: Bai, ala dago, eta azken-azkeneko errenkadan alaere, obeto ikusi dezagun.

IKASLEAK: Katoliko-liberalak nola ikusten ez dute bada?



MAISUAK: Nai ez dutelako ikusten ez dute, bada añ dira seta gaizto edo tema aundikoak.— Aita Santu Pio bederatzigarreak argatika oi ziyon: «Katoliko liberalak bide zuzenera ekarri itzazute; bañon, o zer gauza zalla dan!».

IKASLEAK: Opiniyo eta dotriña debekatuben lista edo *Syllabus* ori, aspalditxoan emana ote da?

MAISUAK: Aurtengo abenduban dira ogeita iru urte biraldu ziyela obispo jaun katoliko guziyai Aita Santu Pio bederatzigarrenak.

IKASLEAK: Liberalkeriya beste geyagotan ere debekatu ote zuan Aita Santu ark?

MAISUAK: Franzia-ko katolikoai, len esan degun itzaldi artan, ala esaten ziyen aserre santu batekin Pio bederatzigarrenak: «*Katolikoan liberalkeriya* beti debekatu izan det, eta ala bear balitz, baitaere berrogei bider debekatuko nuke bera». — Katoliko-liberalen kontra, erak ematen ziyon guziyan, itzegin oi zualako, geratu zitzaion Aita Santu hari izengoiti onragarrizat *liberalen malluba* izate, aurreko denboretan san Atanasio sonatubari *arianoen mazoa* zeritzan bezela.

IKASLEAK: Eta oraingo Aita Santu Leon amairugarrenak ontzat ematen al ditu ber aurreko Aita Santubaren dotriñak?

MAISUAK: Bai, ala ematen ditu.

IKASLEAK: Probatu bizait bada.

MAISUAK: Aita Santutzara igo zanetik bi illabete bañon len, *Inscrutabili Dei* asitzen dan karta bat eskribitu ziyen obsipo guziyai, eta bertan ara zer diyon: «Nere aurreko Aita Santuben bideak berak jarraitzen ditudalarikan, ayen dotriña gaiztoen kontra ipiñi zituzten DEBEGU GUZIYAK ontzat eman eta BERRITZEN ERE DITUT apostolotasu-netik datorkidan aginbidearekin».

IKASLEAK: Zer besterikan diyo, liberalkeriyari dagokiyonik, oraingo Aita Santubak?

MAISUAK: *Immortale Dei* deritzan beste karta sonatu batean, zanpazten ditu arrazoiz *geyekiko libertadeak*: baitaere ontzat ematen du *opiniyo falsoakin* Pio bederatzigarrenak egindako lista edo *Syllabus*: eta karta orretan gañera ara zer erakusten zaigu: «OPINIYOEN GAÑEAN GAUZA BEARRA DA Aita Santuben esanetara umilkiro jarririk egotea... Eta gaurko egunean billatzen diran LIBERTADEETAN ere katoliko guzi-guziyak Aita Santubaren esanean egon bear dute sinistiaz bakoitzak Aita Santubak berak sinisten duana bera. BEGIRA KONTUZ, LIBERTADEAK, BEREN ITXURA ONAKIN IÑOR ENGAÑATU EZ DEZATEN».

IKASLEAK: Osoro bat daude beraz esan diran Aita Santu biyak?

MAISUAK: Aita Santu guziyak dira bat kristau guziyontzako dotriña erakusten dutenean, bada Aita Santuben bidez Jesukristo bera da beti dotriña erakusten diguna.

IKASLEAK: Eta obispo jaunak liberalkeriya debekatutzat ote dakaute?

MAISUAK: Bai aixare; bada nekez topatuko da obispo katoliko bat bakarra, opiniyo debekatuben lista, edo *Syllabus*, ontzat ez daukana. — Orrezaz gañera, liberalkeriyaren kontra itzegin edo eskribitu izan duten obispo jaunak eziñ konta litezke: eta are gutxiago berriz kontatu litezke, obispo jaunen baimenarekin, liberalkeriyaren kontra mundu guziyan eskribitu izan diran, eta eskribitzen ere diran, liburu eta paper-sortak.

IKASLEAK: Liberalkeriya debekatzen ote da Bitoria-ko obispo jaunak beste bostekin alkar-artuta biraldu zuten karta eder artan?

MAISUAK: Beste gai batzuez gañera, baitaere liberalkeriyaz zorrozki-ro itzegiten da karta artan: eta kartaren bukaeran agintzen da *bera eliza guziyetan irakurtzeko*, eta ondoren *apaiz-nagusiya* eta sermoigille guziyai esaten zaye karta barruko itzagayak kristau katolikoai *adierazi* eta *sar-erazotzeko sa ritan*. Obispo jaunen borondatetikan beraz, baitaere liberalkeriya SARRITAN ADIERAZI ETA SAR-ERAZO bear diye apaiz-erretoreak eta SERMOIGILLE GUZIYAK eren aditzalleai.

IKASLEAK: Kontu orretan obispo jaunak Aita Santubakin osoro daude bat?

MAISUAK: Bai, beñere bañon geyago daude, ala esan dan gayan, nola beste geiyetan.



IV Irugarren

IKASLEAK: Zergatikan geyago da pekatu liberalkeriya?

MAISUAK: Pekatu da, eta pekatu andiyenetakoa, fedea galtzeko peli-gro alde-aldekoa; fedea galtzeko osoro da peli-gro aldekoa eta bide zuzena liberalkeriya; pekatu da beraz au eta pekatu andiyenetakoa alaere.

IKASLEAK: Fedea galtzeko arriskuba zergatiekan da pekatu?

MAISUAK: Len esan danez, ez bakarrikan lege-austea edo gaitza da pekatu, baitaere ala da lege-austeko arriskuba, edo gaitzerako bide zuzena; eta nola Jaungoikoaren legeko gauzarik bearrenetakoa bai dan fedea, au galtzen bada beraz, edo galtzeko peli-gro aldekoa nai bada Jaungoikoaren legea austen da, edo austeko bidea nai da; eta beragatikan da pekatu, ala fedea galtzea, nola fedea galtzeko bidea edo peli-gro aldekoa.

IKASLEAK: Jaungoikoaren legeak zer diyo bada fedearen gañean?

MAISUAK: Beste gauza egoki askoren artean, ala diyo: *Kondenatuba* edo betiko galduba *izango da, sinisten ez duana*. — *Jaungoikoari inolaere eziñ gisto eman leyoke federikan gabe*. — Baitaere adierazten du argiro, *beste gauza on asko bañon* LENAGOKOA, eta gauzarik BEARRENETAKO BAT dala FEDEA.

IKASLEAK: Liberalkeriya nola da ordea fedea galtzeko bide zuzena edo peli-gro aldekoa?

MAISUAK: Fedea aditzen da, Jaungoikoak agertu eta ama Eliza santak erakusten duan guziya sinista: ondo deizkiyona beste gauzarikan sinisten ez du liberalkeriyak, ez behintzat bere kontrako gauzak sinistu nai izaten ez ditu; or beraz nola liberalkeriyak austen duan fedea, edo austeko bidean behintzat nola bai dagon.

IKASLEAK: Fedea al dakar bada ezer liberalkeriyaren kontra?

MAISUAK: Besterikan ez, esateko.

IKASLEAK: Nun edo nolatan bada?

MAISUAK: Gaitzerako libertadea ontzat dauka liberalkeriyak, eta fedea diyo berriz *gaitzetik apartatu, eta ona egiteko*. liberalkeriyak libertadeari eman nai diyon muga edo neurriya, bakarrikan da, gerrak ez sortzea, edo Gobernuak botatzeko biderikan ez ematea; bañon fedea libertadeari jartzen diyon muga da, Jaungoikoaren *aginteak gordetzea*. — Liberalkeriyaren dotriñetako bat da gañera, soziedade edo jende-billertan sarbiderikan ez duala Jaungoikoak; fedea berriz diyo JENDEAK

lurrean Jaungoikoak GIDATZEN DITUALA, eta bera dala MUNDU GUZIO ERREGEA. — Jesukristo gure jaunari *erregeen* ERREGEA eta jaunen JAUNA deritzate liburu santubak; bañon baitaere Jesukristoren nagusitasun ori liberalkeriyak ukatu egiten du. — Eta azkenikan ebanjelio santubak diyonez, EROZEN *personari* eta JENDE GUZIYAI *erakusteko aginbidea* dauka gure ama Eliza santak; baitaere beraz erregeai, agintariyai eta erri-billera edo erreinubai erakusteko eskubidea Elizak badu: bañon Eliza santaren eskubide au aintzakotzat ez dauka liberalkeriyak. — Alde askotara beraz austen du fedea liberalkeriyak, edo fedea austeko bide zuzenean behintzat, bai, badago.

IKASLEAK: Bitoria-ko obispo jaunarekin batera eskribitu zan karta, zer irakurtzen da gai orrezaz?

MAISUAK: Beste gauza batzuen artean ara zer: «Liberalkeriyara jarriyakekin, izenbategi galduta, nai gabea eta igerri gabere bai, fedearen gozasuna aurrena eta gero fedea bera ere bai! Ez diyo ezer berak uste badutere sinisten dutela; bada duten fedea, nola zimendatzen ez baita Jaungoikoan eta Elizagan, fede ori zerurako baliyo ez duana da. SINISTEN DIRA; BAÑON SINISTEN EZ DUTE. Dauka aire eta izate berekoya, Elizarekin eta zereutikako gauzetan txurak dira, eta datoz idukitzera kristautasun bat norberetzakoa, bakoitzaren sentiera edo ustekoa, beren opiniyo kutunakin ondo ez datozen aginteak eta dotriñak botatzen dituanz».

IKASLEAK: Bañon eta liberalkeriya zergatikan da *pekatu andiyenetakoa*?

MAISUAK: Jaungoikoarekiko gorroto nabarmenaz kanpora, fedearen kontra egiten diran pekatubak dira andiyenak: orain esan danez, liberalkeriya fedearan kontrako pekatuba da; baitaere beraz pekatu andiyenetakoa da.

IKASLEAK: Jaungoikoarekiko gorroto nabarmena askok ote dute?

MAISUAK: Infernuban dauden guziyak bai badute; bañon munduban gutxi dira beraiz, edo zuzenean, Jaungoikoak gorrotatzen dutenak.

IKASLEAK: Zergatikan dira ordea andiyenak fedearan kontrako pekatubak?

MAISUAK: Gaitzik andiyena egiten zayo arbola bati, bere sustraya kendu edo galdubarekin: egiazko ontasanaren sustraya da fedea, gure ama Eliza santak erakusten duanez; fedea galduta edo austea beraz gaitzik andiyena da, eta beragatikan ere da pekatu andiyena.— Orrezaz gañera: fedea duanak, okerrik andiyenak ere, noiz nai zuzendu ditzake, eta ala salbatu ditek; bañon federik gabeko ontasunik andiyenarekin



ere, lenxeago esan danez, iñor zeruratu eziñ diteke.— Fedea galdu edo austeaa degu beraz okerrik aundiyena eta pekatu rik larriyena: aditzen da beti, *beraz* eta Jaungoikoarekiko gorrot nabarmenaz kanpora.

IKASLEAK: Gauza aundiya da orduban fedea?

MAISUAK: Osoro da aundiya eta protxugarriya, ikusi danez: eta fedeausteaa, edo dotriña gaiztoetara itsatsitzea, beragatikan da osoro pekatu aundiya eta alderdi kaltegarriya, arbolaren sustraya galdu edo usteltzea osoro oker aundiya litzaken bezela.

V Laugarrena

IKASLEAK: Liberalkeriya pekatu dala adierazteko arrazoirik ote dago?

MAISUAK: Daude asko.

IKASLEAK: Esan bezait bada aundiyenetako bat.

MAISUAK: Beartubak gaude guziyok Aita Santuben eta obispo jaun-en esanak sinistra: liberalkeriya pekatu dala Aita Santubak eta obispo jaunak esaten digute; Kristau katoliko guziyok beartubak gaude.

IKASLEAK: Aita Santuben eta obispo jaun-en esanak zergatikan sinistu bear ditugu?

MAISUAK: Eliza santaren mingaña, eta gure maisu eta artzaiak diralako: eta ala, Aita Santubari batezere, eta Aita Santubakin bat dauden obispoai sinistra, ama Eliza santari edo Jesukristo Gure Jaunari berari sinistra adiña da.

IKASLEAK: Aita Santubari eta obispo jaunai zertan sinistu bear zate?

MAISUAK: Erljiyoa edo animen salbaziyoa nolani ikutu dezakeen gai guziyetan; baitaere beraz liberalkeriyaren gañean esan dezaketena sinistu bear zate.

IKASLEAK: Eta liberalkeriya pekatu dala esan duten Aita Santubak zeñ dira?

MAISUAK: Len Aitatu diranak berak.

IKASLEAK: Noiz esan zuan bada Pio bederatzigarrenak pekatu dala liberalkeriya?

MAISUAK: Askotan esan danez, gaiztakeri guziya da pekatu: eta, ala, gauza bat gaiztoa dala esatea, pekatu dala esatea adiña da: eta nola Aita Santu ark eziñ kontala bider esan bai zuan liberalkeriya osoro dala gauza gaiztoa, beste ainbeste bider liberalkeriya pekatu eta pekatu aundiya dala esatea adiña egiten zuan.

IKASLEAK: Liberalkeriya pekatu dala adierazi ote zuan beste moduren batera Pio bederatzigarrenak?

MAISUAK: Adierazi zuan liberalkeriya pekatu dala diyoten zenbait liburu ontzat emanda.

IKASLEAK: Zer liburu dira oye?



MAISUAK: Baa da beintzat Franzia-ko elizgizon jakintsu batek, Segur zeritzanak, eskribitu zuana; eta liburu orri euskaraz deritzaya *Eskeitza gazte katoliko liberalai*.

IKASLEAK: Zer irakurtzen da bada liburu orretan?

MAISUAK: Beste gauza egoki askoren artean ara zer: «Gauza seguru-ba da dotriña liberalak agiriyen edo ezkutuban idukitzeak, baitaere dotriña liberalen erara bizitzak, pekatu mortalaren gaya daukatela, Aita Santuben esanai obedezitzen etzayelako. Ez det esan nai onekin *beti* egiten dala izatez pekatu aundiya, bada bakoitzaren barrengo berri Jaungoikoak bestek ez daki. Diyot bai, eta dudarikan ez daukat onetan, pekatu mortalaren gaya dagoala esa dedan orretan».

IKASLEAK: Pio bederatzigarrenak berez eta argiro liberalkeriya pekatu dala beñere ez al zuan erakutsi?

MAISUAK: Liberalkeriya debekatubarekin batera mundu guzirako karta sonatu bat eman zuan, eta karta artan erakusten zaigu eze *Aita Santuben esanetara ez jartzea eta beren legeai ez obedezitzen pekatu dala, eta gutxi-asko fedea austen dala*: eta ori liberalkeriya ere pekatu eta fedearen kontra dala esatea adiiñaxe izan zan.

IKASLEAK: Aita Santu Leon amairugarrenak liberalkeriya pekatutzat ote dauka?

MAISUAK: Bai aixare; bada bere aurreko Aita Santubak, batezere Pio bederatzigarrenak, erakutsi zuten guziya ontzat emana dauka, lenxe-ago ikusi degunez.

IKASLEAK: Oraingo Aita Santubak liberalkeriya pekatu dala adierazi ote du beste modu berriren batera?

MAISUAK: Bai.

IKASLEAK: Nolatan bada?

MAISUAK: *El liberalismo es pecado* erdaraz, edo *Liberalkeriya pekatu da* deritzagon liburu sonatuba ontzat emanda.

IKASLEAK: Liburu ori nork eskribituba da?

MAISUAK: Kataluña-ko apaiz birtutetsu batek.

IKASLEAK: Liburu orrek zer erakusten du bada?

MAISUAK: Erakusten du pekatu dala liberalkeriya, eta pekatu ori dala *lariya*, eta pekatuetan *aundiya*, Jaungoikoarekiko gorroto nabarmena apartatzen bada. «Liberala izatea beraz, diyo liburu orrek, blasfemoa, lapurra, adulteroa edo aragikoya, eriotzagillea, edo Jaungoikoaren legeak debekatzen duan beste erozer gauza bañon pekatu geyago da: « aditzen da ori, liburubak berak diyonez, ez baldiñ bada bat liberala gauza ona delakoan, ez jakiñean eta uste gabeen.

IKASLEAK: Liburu ori ontzat al dauka gero Aita Santubak?

MAISUAK: Aurtengo illbeltzean Aita Santubaren ordeko eliz-gizon txit jakintsubak Erroman erabaki zuten liburu orretako dotriña ona dala; eta ori Aita Santubak berak liburuba ontzat idukitzea adiiña da.

IKASLEAK: Geroenean gezurtatu etzuan bada Aita Santubak liburu ori bera?

MAISUAK: Ezta iñolaere; bada liburu ori gezurtatzeko, katoliko-liberalak nai zukeen bezela, ontzat eman bear zan liburu orren kontra eskribitu zan beste liburu sonatuba, *El proceso del Integrisimo* deritzana; bañon katoliko-liberalen gogoaz beste aldera eta Erroman erabakiya dagoanez, azkena esan dan liburu ori, *nolabaitekoa* dalako, ezkutuban eta jende arte-ra gabe egotekoa da.

IKASLEAK: Lengo abuztuban erabaki etzan bada zerozer Erroman liberalkeriya pekatu dala diyon liburu orren kontra?

MAISUAK: Bai nai katoliko-liberalak, bañon ez dago orrelakorikan. — Erabaki zana da berriro, liburu orretako *dotriña berez ona eta Elizak erakusten duan erara* dala; bañon onek esan nai ez duala gizonen arteko bandera baten aldekoa dala Eliza. — Nolanaire behintzat, liberalkeriya pekatu ez dala, iñolaz erabaki etzan, ezta gutxigorikan ere.

IKASLEAK: Liberalkeriya pekatu dal erakusten ote dute obispo jaunak?

MAISUAK: Oraiñ bi urte Ekuador-ko errepublikan, zazpi obispaduetako animen arzayak alkarren artean eskribitutako karta eder batean, ala irakurtzen da: «Aditzen bada beraz ondo liberalkeriya, utsegite aundi bat da, da PEKATU MORTALA, konfesoreak eta konfesatzen diranak, kontuz ikusi bear dutena, sakramentu santubak artu bear diran guziyan».

IKASLEAK: Bitoria-ko obispo jaunarekin batera egin zan kartak al diyo liberalkeriya pekatu dala?

MAISUAK: Bai; ara bertako itzak: «Esango dute pekatu ez dala liberalkeriya, eta onenean beti kulparikan izango ez du liberalkeriya nai duanak: bañon dotriña gezurtiya da (liberalkeriya) eta BEREZ PEKATU eta laguntzen du beti gerenezko dotriña gezurtyak zabaltzen». — Itz oyetan irakurtzen degunez, beraz, liberalkeriya *berez pekatu da*; eta da pekatu larriya, dotriña gaiztoak zabaltzen *beti laguntzen dualako*.

IKASLEAK: Darabillkigun gai onezaz esankizan berririkan al dauka?

MAISUAK: Oraindik-orain, edo aurtengo mayatzean, ara zer eskribitu ziyen bere ardiyai Amerika-ko obispo jaun zelotsu batek: «Bai; gaiztoa da liberalkeriya, eta DA PEKATU, bada Jaungoikorikan eta Erlijiorikan gabeko LIBERTADEA da».



VI Bukaera

IKASLEAK: Liberalkeriya bat ona ez al dago?

MAISUAK: Ez; ez dago: bada arkitzekotan liberalkeriren bat ona edo gaitz gabea, katoliko onradu eta elizakoyena bearko luke izan orrek; eta an zuzen ere, katolikoen liberalkeriya da *oso-osoan* debekatu zuana Pio bederatzigarrenak, len ikusi degunez.

IKASLEAK: Liberal guziyak berdiñak al dira bada?

MAISUAK: Guziyak billatzen dute gitzerako *libertaderen* bat, eta onetan liberal guziyak bat dira; bañon batzuek nai dute libertade geigo, besteak gutxigo, eta orretan bestetan ez dago liberalen arteko desberdintasuna. — Liberal guziyak beraz *izatez* bat dira, eta kolore edo itxuraz dira asko: argatikan esan diteke liberalak dirala ollaloka baten txitak bezela, edo familia bateko senide aundi eta txikiyak bezela.

IKASLEAK: Zer diyote eliz-gizonak gai orrezaz?

MAISUAK: *El Liberalismo es pecado* liburuba eskribitu zuanak, ala diyo: «Liberalkeriya bat bakarra da; bañon liberalak badira, ardo txarrakin gertatzen dan bezela, kolore eta gusto desberdiñekoak».

IKASLEAK: Liberal guziyak daude orduban pekatu mortalean?

MAISUAK: *Berez* bai, ala daude.

IKASLEAK: Zer esan nai du orrek!

MAISUAK: Egiyazko liberalak bakarrikan egiten dutela pekatu larriya.

IKASLEAK: Egiyako liberalak zeñ dira?

MAISUAK: Liberalkeriyara jakiñaren gañean edo naita itsatsitzen diranak.

IKASLEAK: Bestelako liberalik ez al dago?

MAISUAK: Baitaere liberalai, jakiñaren gañean eta borondatez, beren egitekoetan laguntasuna opa izatea, liberala izatea adiña da.

IKASLEAK: Zergatik bada?

MAISUAK: Ez bakarrikan gaitza *nai*, edo *egiten* duana da gaizkillea, baitaere ala da gaitza nai edo egiten duanari *laguntzen diyona*; bada erozeñek dakiyanez, laguntzallerikan gabe gaizkilleak izango ez lukete izaten duten adiñako indarra. — Eta era berean, eztaere liberalak daukaten indarra idukiko ez lukete eta egiten dituzten okerkeri guziyak eziñ egingo litzuzke, daukaten laguntzalleak ez balituzte: eta orra nola liberalak beren gazetan serbitzen dituztenak ere liberalkeriyari sartzan baitiran.

IKASLEAK: Liberalai zer laguntasun datozkiye ongiyen?

MAISUAK: Beai *botoak* ematea, beren gazeta eta paper gaiztoak irakurtzea, edo oyetan guk *diruba gastatzea*, erlijiyorikan gabeko maisuetara gazteak eta *dotriña* gabeko eskoletara umeak biraltzea, eta beste zenbait.

IKASLEAK: Kristau-katoliko onak beren botoak zergatikan eman bear ez dizte liberalai?

MAISUAK: Gizonak aginbidean ipintzeko dira botoak; eta liberalak aginbidean ipintzea, Elizari etsai indartsuak ematea da; eta gaitzakeri aundiya litzake ori.

IKASLEAK: Liberalai botoak ez ematearen gañean al diyote ezer obispo jaunak?

MAISUAK: Bitoria-ko obispoak eta bere bost lagunak ala diyote: «Egiyako katolikoak, Eliza santaren ume umillak, errespetotsuak eta mendekoak ez diranai: BEÑERE EZ EMAN ZUEN BOTOAK»; eta liberalak, ikusiya daukagunez, ez dira *egiyazko* katolikoak, ez Eliza ama santaren ume umillak, errespetotsuak eta *mendekoak*, berai ondo ez datozkiyen gazetan ez behintzat: obispo jaunen borondatetikan beraz liberalai botoak eman bear etzaizte.

IKASLEAK: Eta liberalen gazetak zergatikan irakurri bear ez dira, ez eta diruba ere gastatu bear ez da ayetan?

MAISUAK: Gazeta liberalak ainmarentzako jaki puzoitsu batzuek besterikan ez dira, bada batzuetan *nabarmenkiro* eta besteetan *zomorrokero* dotriña faiztoz beteak datoz; eta nola gaitzera osoro makurtubak bai gauden, gazeta liberalak irakurriyarekin, edo berai diruba emanda entsiyarekin, geron anima, edo besteen batzuen, arriskatzen degu zerurako iltzera.

IKASLEAK: Madriden argitaratzen diran gazeta liberaletan, gaiztonak bezela edo kaltegarriyenak zeñ dira?

MAISUAK: Katoliko onak edo osoak izan nai dutenentzat *La Epoca* eta *La Union Catolica* dira gaur kaltegarriyenak.

IKASLEAK: Zergatikan bada?

MAISUAK: Puzoya jakiñaren gañean iñork tragatu nai izaten ez du: eta ala, gazeta liberalak nabarmenkiro edo osoro gaiztoak diranean, *El Motin*, *Las Dominicales*, *El Globo*, *El Liberal* eta beste asko bezela, katoliko onai izua ematen diye; bañon aurretik aitatu diran bi gazeta ayek *pixkanan* eta *ezkutuban* dakarte puzoya, eta gaitzik ez dutelakoan katolikori onenak ere irakurtzen dituzte gazeta oyek, eta, igerri gabe bezela, irintsitzen dute berak dakarten puzoya.

IKASLEAK: *La Epoca* orren gaiztoa ote da bada?

MAISUAK: Bai, eta askok uste duten bañon gaiztoagoa.

IKASLEAK: Zer gaitz du bada gazeta orrek?



MAISUAK: Aitor du berak liberala dala, baitaere onragarriztat dauka *gaurko-egunekoa* edo liberala izatea: denbora berean, Aita Santuba nolaere obispo jaunak bere aldekoak balitu bezela, daki noiz nai itzegiten: eta horrela sinistazitzen diye bere irakurleai katolikoan liberalkeriyak gaitzikan ez duala.

IKASLEAK: Bañon eta *La Union Católica* liberala al da?

MAISUAK: Berak esan nai ez du ala dana, bañon bai sobraere ala da.

IKASLEAK: Zergatikana bada?

MAISUAK: Bere dotriñetako bat da, guk len esan degunez kontrara, liberalki bat ona, edo gaitz-gabea, badala: eta orrekin *gutxienez* adierazten duana da, *gogoz* behintzat liberala dala. Orrezaz gañera; katolikorik onenak edo katoliko osoak, au da, liberalkeriyaren kutsurikan ere nai ez dutenak, begiko zakarra bañon geyago ikusi eziñ ditu gazeta orrek; eta katoliko oso oyen etsairik aundiyenak berriz, losintxa eta laztanez betetzen ditu: liberalkeriya ezpada beraz ori, ezerere ez da, bada *arbola bata bere fruetatik ezagutzen da*, ebanjeliyo santubak berak diyonez.

IKASLEAK: Zeñ dira ordea, esan dan gazeta orrek, ikusi eziñ dituan katoliko onak?

MAISUAK: Beñepeñ ala dira *El liberalismo es pecado* deritzayon liburu orretako dotriñak jarraitzen dituztenak; bada Aita Santubak Erroman dauzkan tribunal *zorotzenetako* batek erabaki zuan, arkitu etzuala *ezerere* liburu orretan Elizako dotriñaren kontra, baizikan Elizak erakusten duan erara eta egoki jarriyak zeudela bertako erakusaldiyak; eta *alabanza merezi duala* liburu ori eskribitu duanak.

IKASLEAK: Eta egiya da *La Union Católica* orrek *El liberalismo es pecado* banderatzat bezela artuba daukaten katolikoak ikusi eziñ dituala?

MAISUAK: Añ da egiya eze, beren izen garbiya ere opa ez, eta dabill beti izengoiti lotsagarriyak ipiño nairikan berai esan dan liburu on ori eskribitu zuan apaiz birtutetsua berriz, ez daki nola loitu: eta, au guziya asko ez balitz bezela, baitaere badu ausartea, Erroman ontzat emandako liburubaren kontra mingañera datorkiyon guziya esateko.

IKASLEAK: Eta *La Union Católica* orrek berak añ kutun eta maite dituan katolikoak zeñ dira?

MAISUAK: *El proceso del Integrisimo* liburu debekatubaren aldekoak: au da, liberalkin alkar-artuta *lasa-lasa* edo buruko miñ gabe bizi nai duten katolikoak: orrelakoak, bai, zerurano altxatzen daki *La Union Católica* orrek.

IKASLEAK: Aita Santuba, obispoak eta erlijyoko beste gauza on asko beti aoan ez darabizki bada gazeta orrek?

MAISUAK: Bai, ala darabizki; eta egiya esateko, orretan dago gazeta orren gaitzik aundiyena; bada adierazten diye orrekin bere irakurle itxuai Elizaren aldeko bandera dala *La Union Católica*.

IKASLEAK: Gazeta katoliko-liberal *guziyak*, zer bezela dira?

MAISUAK: *Ur-ardoa* bezela, ez ardo eta ez ura: au da, ez egiyazko katolikoak, eztaere liberal osoak. Dira erbi biren atzetik dabiltzan eiztariyak bezela; bada ez bata ez bestea arrapatzen ez dituzte: au da, ez katolikotasuna dute *egiyazkoa*, eztaere liberalkeriya.

IKASLEAK: Euskal-erriyan zer gazedta ditugu kaltegarriyenak?

MAISUAK: *La Voz de Guipúzcoa*, *El Noticiero Bilbaino*, eta oyen antzeko beste batzuek.

IKASLEAK: *La Voz de Guipúzcoa* gaizto nabarmena ez da bada?

MAISUAK: Bai sobraere, ala da.

IKASLEAK: Nolatan da bada añ kaltegarriya?

MAISUAK: Alderdi on bat badulako Kristau *tonto* askorentzat: da ori *notiziyak* edo albisteak beste gazeta askok bañon aurreago ekartzea. Ikusi gabe sinistu eziñ zitekean, berri batzuek lenxego jakiteatikan, katoliko euskaldunak jarri bear zutela gazeta añ gaiztoa irakurtzera, eta diruba ere berari ematera, dotriña puzoitsubak edan trukara.

IKASLEAK: Eta *El Noticiero Bilbaino* zergatikana da añ kaltegarriya?

MAISUAK: *La Union Católica*, *La Epoca*, eta beste gazeta katoliko-liberal guziyak bezelaxe, dotriña gaiztoen puzoya jaki eta edari gozoakin nastuta dakarrelako: au da, erlijyoko gauzarik onenak noiz nai liberalkeriyarekin batea dakazkilako, gaiztotuaz horrela katoliko *fiñ* asko.

IKASLEAK: Bitoria-ko obispo jaunarekin batera egin zan kartak zer diyo gai orrezaz?

MAISUAK: Ara bertako itzak: «Ez lagundu zuen DIRUBAREKIN eztaere zuen izenakin LIBURU, PAPER-SORTA EDO GAZETA GAIZTOAI». — Baitaere irakurtzen da karta orretan bertan: «Erlijyoarekin eta oitura onakin GUZIYAN ondo ez datozen LIBURUBAK, PAPER-SORTA EDO GAZETAK EZ IRAKURRI».

IKASLEAK: *Dotriña gabeko eskoletara* umeak, eta *erlijyorikan gabeko maisuetara* gazteak, zergatikana biraldu bear ez dira?

MAISUAK: Gurasoen eta zarragoen egitekoa da beren umeak eta mendekoak *zerurako* azitzea; bañon infernurako bidean jartzea bezela da, umeak dotriña gabeko eskoletara, eta gazteak erlijyorikan gabeko maisuetara biraltzea: ez gurasoak beraz, eztaere ume edo gazteen kargudutenak, esan dan okerquiririk inolaere eziñ egin dezakete. — Gañera; bigariko mundubaren *aziya* bezela ditugu oraingo ume eta gazteak: oyek erlijy-



yo gabeko edo gutxiko eskola eta maisuetara biraltzea, liberalkeriyara gutxi edo geigo itsatsitzea adiña da; eta orra nola gero ere iraungo lukean liberalkeriyak munduban.

IKASLEAK: Ainbeste aldiz airatzen degun obispoen kartak, gai orrezaz ote dakar ezer?

MAISUAK: Ala diyo: «Bear bezelakoa izango bada aziera, GAUZA BEARRA DA lenengo: aurrari kristauben DOTRIÑA erakuste..... GAUZA BEARRA DA eta zaindu bear dute gurasoak beren semeak erori ez ditezen gaizki erakutsi leyeketen MAISUEN ESKUETAN. Zorigaitoz orrelako maisubak baditu gazte batek, seguru bezela eman diteke bere galera».

IKASLEAK: Baitaere beraz liberalen *laguntzalleak* pekatuban daude?

MAISUAK: *Berez* bai aixare.

IKASLEAK: Zergatikan bada?

MAISUAK: Gaiztakeri guziya da pekatu, askotan esan degunez: ikusi ere degu, gauza gaiztoa dala liberalai laguntzea; liberalen laguntzalleak beraz pekatu egiten dute.

IKASLEAK: Pekatu txikiya edo aundiya da ori?

MAISUAK: Liberalkeriya pekatu larriya da, len esan degunez; baitaere beraz ala izan bear du laguntasunakin liberalkeriyari eustea.

IKASLEAK: Bitoria-ko obispo jaunak eta bere lagunak zer diyote gai orretan?

MAISUAK: San Pablo apostoloarekin batera ala diyote: «Ez bakarrik gauza gaiztoak egiten dituztenak merezi dute eriotza, baitaere ala merezi dute gaiztakeriyak egiten dituztenai *ontzat ematen diyozkatenak*. — Eriotza edo animaren galera merezi badute beraz gaiztakeriyak ontzat duazkatenak, arrazoi guyagorekin mereziko due eriotza ori, gauza gaiztoak egiten dituztenai *laguntzen* diyenak; baitaere beraz liberalkeriyari laguntzen diyenak merezi dute animaren galera edo eriotza: baño nola animaren aldeko eriotza merezitzen ez baitan pekatu larririkan gabe; liberalkeriya eta beste erozer gaiztakeri *ontzat ematea* beraz pekatu larriya da, eta are geyago da berali *laguntzea*.

IKASLEAK: Esan diran kontuetan *infernurako* bidea da beraz liberalkeriya?

MAISUAK: Pekatu larri guziya da infernurako bidea, fedea erakusten digunez; baitaere beraz liberalkeriya ala da.

IKASLEAK: Liberala izatea beste pekatu gabe, joan al diteke bat infernura.

MAISUAK: Ikusi degu len, lapurra eriotzagillea, aragikoya eta bestelako gaizkillea izatea baño okerrago dala berez liberala izatea; aitatu diran gaizkilleak eta oyen gisakoak berenez infernura dijoaz; baitaere beraz egiazko liberalak, edo fedea gutxi asko austen dutenak, arrazoi geyagorekin dijoaz.

IKASLEAK: Eta liberalen *laguntzallea* izatea ako ote da bat infernura joateko?

MAISUAK: *Berez*, edo egiazko laguntzallea izan ezkeroz, bai, asko da.

IKASLEAK: Zergatikan?

MAISUAK: Esan berriyak gera, liberalkeriya *ontzat ematea* dala pekatu mortala pekatu mortala, baitaere ala dala, arrazoi geyagorekin, liberalkeriyari laguntzea; eta nola pekatu mortal guziya infernurako bidea biatan; baitaere beraz ala da liberalkeriyaren laguntzallea izatea. — Aditzen da beti egiazko laguntzallea bada; au da, jakiñaren gañean eta bere gogoz.

IKASLEAK: Konfesatu bear ko da orduban liberalkeriya, baitaere liberalkeriyaren laguntzallea izana?

MAISUAK: Barkatuko badira pekatu oyeke, bai, konfesatu bear dira, konfesatu litezkeala; bada ezagutzen diran pekatu larri guziyak aitortu bear dira konfesiyoan.

IKASLEAK: Liberalkeriya, edo liberalen laguntzalle izatea utzi nai ez diyonari, barkatu lezayoke pekatu ori?

MAISUAK: Ezta iñolaere; bada pekatu bat barkatuko bazaigu, bera konfesoari aitortzeaz gañera, bear degu iduki pekatubaren egiazko *damuba*, eta aurrera artatik egiñala guziyan aldegitoko *asmo* sendo eta eragillea.

IKASLEAK: Len *liberala*, edo liberalen *laguntzallea* izan dana, zer bear luke bada egin, ondo izateko, au da, Jaungoikoarekiko ikuskizunikan gabe gelditzekeo?

MAISUAK: Lenbizi konfesiyo on bat, alkartzen duala artarako, konfessore jakintsu eta birtute aundiko batekien: geroenean berriz, aspaldiko okerrak nolerebait zuzen du edo ordaintzeagatik, lanegiñ *ermo* eta alde *guziyetara* liberalkeri madarikagarriyaren kontra.

A. M. D. G.

X.